

dan guzurra, oben ariña da beti. Kaltegiña, astuna edo ariña, kaltiaren neurritz.

—Guzurra esateko ziyorik ez ete dago?

—Esan dogunez guzurra berenez da txarra, beraz ezin ezelan esan geinke, ez da iñorbaiten bizitza zaintzeko be. *Ez da zillegi gauza txarra egitia, gauza ona erakarteko.* (ROMA, III - 8). Antima, Nikomedi'ko gotzain deunari esaten eutsoen gudariyak guzurra esan-da iges eiteko, baña berak bizitza galdu nayago izan eban guzurrik esan baño.

—Egiya estali ete geinke?

—Bai, egiya estali geinke, esan biarrik izan ez, ta esatetik geuri edo iñori zerbait kalte letorkigunian.


Aunela ixilliko zerbaitetzaz itandu ezkerro, *ez dakit*, erantzun geinkiyo: *ez dakit* zuri esateko. Erantzun ori egin eutsen Jesukisto'k ikaslyei azken egunetzaz galdetu eutsoenian.

Osagille, lege-gizon, epaikari ta abar, egikizunez ixillik euki biar daben zerbaitetzaz itandu ezkerro, *ez dakit*, erantzun biar dabe.

Morro'i-mirabiak erantzun leikie ugesaba - etxeko-andria ez dagozala etxian, itauntzen daua ikusteko gogorik ezpadabe.

Iñorbaitek dirua eskatu ta emoteko gogorik ez - padozu, ez daukozula esan zeinke.

Gurutz.



# Otz

Ludi aizeaz txit otz - mindua biotza daukat, jene Jaun Urtzi! gaxoak daf - daf maitasun - sua berogafitzat nai luke arki:

eta negafez

otzaren miñez

yoranez dago dei - ta - dei Zuri!

Atsegingafi ludi zatafak bere beroa eskiñi dio; jai! emateko, gezufi tzañak, ez dauka oben izotza baño; eta lei gaiztoz gogo ta biotz otzitu dizkit gogortzeraño!

Gaxua otzak, jai Goiko Urtzi! beroki bila nora jun leike? ludiyan dena du otz - otza arki, otz - otza baita ofen sua - re; zureak, Jauna, pizten ez duna beroa zin izan diteke!

Ořengatik ba, Josu Biotza, nere minduak zugana nai du; ařen, zeranez maitasun - utza Zure su ortan berotu zazu; ta naiz bizi izan ludi otz ontan orduan otzik izango ez du!